

*2018ko abendua*

Leartibai Garapen Agentziako helburuetako bat urte guztian zehar turismo ekint



zak sustatu eta dinamizatzea da, urtaroaren arabera ekintza batzuk edo beste batzuk garatuz, turista kopuruak gora egin dezan gure eskualdean. Horretarako, abenduko zubia aukera paregabea da eskualdeko baliabide ez

erdinekin ate irekien programa bat antolatzeko.

Hortaz, Arabar Errioxaren kolaborazioarekin, eta Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidean oinarrituz, abenduak 6tik 9ra, Leartibai Garapen Agentziak bisita gidatuak eta antzeztuak eskaintzeaz gain, normalean itxita dauden baliabide batzuk bisitatzeko aukera ere eskaini dute, Lea-Artibaira txangozaletasuna erakartzeko asmoz.

Lau egun horietan zehar, turistek Santa Katalinako Faroa, Marierrota, Simon Bolibar museoa eta Barinagako Kontzeju Zaharra bisitatzeko aukera izan dute. Horrez gain, Ondarroa eta

Markina-Xemeinen ere bisita gidatuak antolatu dira, azken honetan antzeztutako bisita gidatua izan da gainera. Programaren helburuetako bat ekintzak goiz zein arratsaldean eskaintzea izan da, turistak eskualdean denbora gehiago gera zitezten.

Hedabide ezberdinetan ekintzen difusio kanpaina bat egin da (Bizkaibus, GasteizON), eta ondorioz, ekintza guztiak jendez lepo egon dira. Antolatutako ekintza ezberdinetan 100 pertsona baino gehiagok parte hartu du, batez ere publiko familiarra.

Bestetik, asebetetze inkestak datu oso positiboak eskaini dituzte. 10 puntu posibletik 9 punturekin baloratu dituzte ekintzak, batez ere baliabideen interesa goraiatuz eta hurrengo edizioetarako programa berriak proposatuz.